

GORA HAURTZAROA!

Hilabetea pasa zaigu, tartean usaindu gabeko udaberria piztu delarik. Hasierako egoeraren berritasunari ikusten genizkion alderdi positiboak eta aukerak ahultzen joan dira pixkanaka. Nekeak eta ezjakintasunak sortzen digun etsipenak bide hartu dio.

Hilabete luze honetan, hainbat egoera eta fase bizi izan ditugu guztiok; haurrak izan ziren lehenak etxean sartzen eta kaleak albo batera uzten eskolak itxi zirenean. Ondoren, osasun profesionalen eskariz konfinamendu orokorra etorri zen eta helduok nahiz haurrak etxean geratu ginen. Orain, ordea, berriro lantegiak ireki dituzte, baina haurrek etxean konfinatuta jarraitzen dute. Egoera honek haserrea piztu digu. Ez da hurrei eta haurren hitzari jaramonik egin ez zaion lehen aldia. Baina, oraingoan, traizioa gehitu zaio: “aditu” izenarekin dabilzan batzuk, haurraren eskubideei eta beharrei muzin eginez, “haurrak gogorrak” direlako aitzakipean, kalera ateratzeko aukera ukatu diete. Bai gogorrak haien bihotzak.

Badirudi orain, azkenean, eta bost asteren ondoren, Hego Euskal Herriko hurrei kalera irte-teko aukera ireki behar zaiela. Goxoki bat balitz bezala, ea horrekin gure haserrea baretzen ote den. Egokia iruditzen zaigu bide hori irekitzea, baina, oraindik ez dute haurren iritzirik jaso. Oraindik, ahots gabeak dira.

Bide batez, zehaztu gabeko erabakia da, eta adi egon behar dugu irteerarako baldintza duinak eskatuz, eta haurrak eta nerabeak kontuan har ditzaten.

Arlo desberdinetako adituek hain luze joan den egoera honek eta aurrerantzean bizitzen jarraituko dituzten egoerek haurrengan kalte handiak eragin ditzaketela azaldu dute. Nahia Idoiaga, Psikologian doktoreak, honakoa aipatzen du: “nik uste denok gaudela harritura haurrak zein ausart eta “heldu” ari diren portatzen, haien rola nola ulertu duten. Baina horrek ez du esan nahi ongi dau-denik edo ez guztiz ongi behintzat. Haserrealdiak, kasketaldiak, negarrak askoz ugariagoak ari dira izaten, normala den eran. Loan ere eragina ari da izaten, maila fisiologikoan.”

Horretaz gain, entzun izan dugu haurrak birus honen transmisore garrantzitsuak direla eta horrek heldu zein haur askorengan beldurra sortu du. Mariaje Sarrionandia pediatrak, ordea, baieztapen hau ez dela zuzena esan digu: “Haurrak ez dira bereziki transmisoreak, kutsatuta badaude transmitituko dute, beste edozein pertsonak bezala; gaur gaurkoz dakigunarekin, ordea, ezin da esan haurrek helduek baino gehiago transmititzen dutenik birusa”.

Haur guztiak etxean daude, baina denen egoera ez dela berdina ere argi izan behar dugu. Alvaro Beñaran psikomotrizistak honakoa dio honen inguruan: “etxean zabaldu leihoak, haurrek haizea eta eguzkia behar dituzte, horrek eragin zuzena dauka euren osasun fisikoan eta animoan. Familia batzuentzat hau izango da egoeraren alde zailena, kalea ikusteko aukerarik ez duten etxeetan bizi diren familien kasuan, balkoirik ez daukaten etxeetan... egoera horiek benetan zailak izango dira”. Oihane Ruiz arkitekto eta urbanista feministak ere gogoratzen digu etxea ez dela leku segurua pertsona guztientzat, ezta haurrentzat ere: “Estatu espainolean umeen % 30 pobrezian bizi da”.

Baina aditu helduez gain, lehen aipatu moduan, hurrek ere badute zer esanik. Haurren ahotsa entzuteak egoera hobeto ulertzea eta horri modu egokian erantzutea ahalbidetuko luke. Helduok ikusten duguna eta hurrek sentitzen eta pentsatzen dutena beti ez baitu zertan bat etorri. Baditugu haurren hainbat testigantza, ederki azaltzen digutenak haurrak pasatzen ari diren egoera. Jarraian hiru testigantza bildu ditugu:

Lehendabizikoa, familia bereko bi erantzun: seme txikiena, negar batean, zotinka, amari esa nez berdin zaiola besteak kutsatzea eta kalera atera beharra duela. Nagusia, berriz, arduratua, ez du atera nahi zaborra botatzea ere, bere lagunen baten aitona-amonaren heriotzaren errudun ez izateko.

Bigarrena, berriz, beste haur bat, aitarekin atera zaborra botatzera, eta ohartu gabe frontoian ikusi zuen korrika buelta eta buelta, denbora galdua berreskuratu nahian.

Azkenekoa, mutiko batena da, oiuhu bizian zebilena. Gurasoak, anai-arreben arteko liskarra zelakoan, ohartu ziren telebistari oiuhu egiten ziola, bere egonezin eta haserrea deskargatzen ari zelarik.

Testigantza horiek eta adituenak bilduta, aurrerapausoa emateko unea heldu da, haurren defentsa aldarrikatzeko.

Haurrak ez direlako etorkizuna soilik, oraina ere badirelako, eta hitza izan behar dutela uste dugulako, Oinherri Herri Hezitzailea ekimenak urteak daramatza honetan lanean eta oraindik ere horretan gabiltza.

Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortu nahi dugu; hori oinarri hartuta, hurrei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena emanaz; eurek eraikitako aisia hezitzailea eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdinak eta parekideak izanda eta ingurumen naturala eta ingurumen kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartuaz, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak josiz.

Haurren irteera bermatzea beharrezko ikusten dugu, baina hori era zentzudun eta ziurrean egitea ere ezinbestekoa dela iruditzen zaigu. Miren Basarasek, EHUko mikrobiologia irakasleak, aipatzen duen moduan, irteera nola egin pentsatu behar da, neurriak aztertu behar dira, eta neurri horiek betetzeko baliabideak jarri beharko dira.

Aldi berean, hurrek itxialdian zehar erakutsi diguten arduraren aitortza egin behar dugu. Ez daukagu zalantzarik, kalera ateratzean ere ardura berbera erakutsiko digutela, neurriak errespetatuz. Baina honetan guztian, bada kezka bizi dugun kontu bat. Beste behin ere, Madrilen hartuko da erabakia noiz, nola, zeinekin, zertara eta zenbat denbora irtengo diren geure haurrak kalera. Testuingurua, hiria, herria, auzoa, espazioak ez dira kontuan hartuko eta nola ez, ezta haurren beharrak eta ahotsa ere.

Horregatik guztiagatik, helduon ardura da, haurren aldeko eskubideak aldarrikatzea eta behingoz haurren ahotsa entzutea.

Erabakia orokorra izango da, gure haurrak eta testuingurua kontuan hartu gabe sortua. Horregatik, gure ardura izango da haurren kaleratzea antolatzea haurrei hitza emanaz eta euren beharrak errespetatuz.

Gure herri eta auzoak komunitate moduan antolatu beharko ditugu haurrak kalera modu seguruan baina atseginean atera daitezen. Hainbeste denbora etxean egon ondoren, merezi dute entzuna izatea eta kalera irteteko momentua pozgarria izateko bideak ematea.

Beraz, entzun haurrak, hitz egin, hausnartu haiekin, jarri hitza egun hauetan bizitu dituzten emozioei eta adostu kalera irtete hori nolakoa izango den. Honetaz gain, eta haurrek erakutsitako jarrera baloratu eta haien ahotsa entzuna izan behar duela aldarrikatzeko, Oinherri Herri hezitzaile ekimenak deialdi hau egin nahi die EHko haur eta familiei:

Datorren apirilaren 26an, eguerdiko 12etan, txalo zaparrada ematea gure etxe, leiho, balkoietatik... xede hauekin:

- 1- Haurrak zoriontzea erakutsi diguten jarreragatik.
- 2- Ospatzea modu bizian, hurrengo egunean, Hego Euskal Herriko haurrek kalera ateratzeko izanen duten aukeragatik.
- 3- Haurren aldeko eskubideen aldarrikapenak gizarteratzea eta haurren ahotsak entzuna izan behar duela aldarrikatzea.

Anima zaitetze!!!
#Gorahurtzaroa

Bestalde Haurtzaroaren defentsan ondorengo loturan aurki dezakezuen manifestua sinatzera animatu nahi zaituztegu. Horretarako klikatu [hemen](#).

GORA HAURTZAROA!